

EUSKERAREN TRANSMISINOA/SOZIALIZAZINOA

Aspaldidanik ugari eta erruz irakurtzen eta idazten edo erabiltzen doguz halako adierazpenak: hizkuntzaren transmisioa, fedearen transmisioa... Esamoldeon zuzentasuna ezelan be ukatu barik, nik neuk nahiago neuke eta zehatzagotzat jotzen dot, edo aberatsagotzat daukat behintzat hizkuntza-sozializazioa eta sinismen-sozializazioa esapidea. Izan be, nahiz eta balioen transmisioaz be berba egiten dogun, transmisioa batez be eduki kognitiboetara eta ezagutza mundura mugatu leiteke, eta horrek oztopo larriak eta eragozpen gaindi ezinak ekar leikioz benetako “transmisioari”. Ez ete dago akats horretan borondate onez erabili eta urratu doguzan hainbeste bideren frutu urrien arrazoa?

Izan be, euskeraz sozializatzea hizkuntza horretan gaitua izatetik askoz harago doa. Sozializazioak, dimentsio afektiboa zein identitarioa, balioak eta arauak be lotzen deutsoz hizkuntzari. Hori gertatzen da, adibidez, euskera familiaren bidez jasotzen danean. Horregaitik, euskeraren, eta edozein hizkuntzaren, sozializazioan ikaragarritzko eragina daben eragileak jakinarazo eta ulertzero emon gura neukez, labur baino ez bada be.

1. Familia

Argi eta garbi izan behar dogu ez dala hizkuntzaren irakasle hutsa. Eta hori holan dalako, guraso erdaldunak be, hizkuntza jakin ez arren, lan aberatsa eta eraginkorra egin leikie, euren seme-alabengan euskerarenganako ilusioa biztuz eta euskeragaz-

ko zaletasuna eta maitasuna bultzatuz. Horrez gainera, euskaldunak, -euskerak-, diran familien bidezko sozializazioak euskerazko hartu-emon-sareak eskeintzen eta zabaltzen deituz umeari. Eta familiarena ez ezik, familiaren bitartez umeei aurkitzen, jasotzen eta eskuratzen dabezan lagun eta ezagun euskaldunen hartu-emonak be bai. Euskerarentzat esku-zabal eta arduraz jokatzeko dauan familia hiztunen komunitatea oparitzen deituz umeari. Eta holan oinarritzeko sarea, familia-koa, zabaldu eta aberastu egiten da, alkarreragile bihurturik, batez be adiskidantza munduko gorabehera eta joan-etorrietan.

2. Eskola

Eragile hau be oso garrantzitsua da, berariazko ekarpena egiten deituz hizkuntza-sozializazioari. Eskolak, izan be, aparteko eran, gaitasun eta trebezia lexikalak, gramatikalak, kontzeptualak eta bestelakoak gehitzen deituz sozializazioari. Horrez gain, familiaren beraren eta gizarte zabalaren arteko zubi-lana be betetzen dau euskerarentzat. Bestalde, irakasle, ikaskide eta lagun barriez osaturiko euskerazko mundu barri bat agertzen eta eskeintzen deituz eskoleak umeari.

Gogoan izan behar dogu, gainera, badagozala eskolak eta eskolak. Zera adierazoz gura dot: hizkuntza-ereduz gain, irakasleen aldetik eta, dana kontuan izanik, ikastetxe osoan, erakundean eta antolakuntzan, dagoan euskeraganako jarrera eta euskeragazko ardura be oso garrantzitsua dala. Ez da, orduan, eskola-orduen kontu hutsa. Izan be, beste hainbat elementu gehitu leitekioz euskerazko sozializazioari hezkuntza-komunitate osoaren laguntzaz. Horretara, familia eta eskola norabide beretik abiatuz, sendogoa eta sustraituagoa izango da umearen hizkuntza-sozializazioa. Bietatik bat bakarrik izan ezkeru euskeraz, ostera, ahulagoak eta urriagoak izango dira euskal hizkuntzan lortutako gaitasunak, abileziak eta baita loturak, begikotasuna eta erreferentzia sinbolikoak be.

3. Kalea

Itzelezko indarra dauko kaleak be hizkuntzaren sozializazioan. Ereku publiku hori zentzun zabalean ulertzen dogu hemen. Hor dogu gizarte giroa, hor xurgatzen eta hazurramintzen dogu, hor entzuten, partekatzen eta bizitzen dogu benetako hizkuntza-giroa. Eskolaz kanpoko ekintzetan erabiltzen dan hizkuntzak indar itzela, zeresan galanta eta zerikusitza ikaragarria dauko, neska-mutilen ikastetxe barruko hizkuntzaren erabileran osorik edo biziro eragiteraino heltzen dala. Izan be, kaleko jardun hori euskeraz egiten bada, eskolaren barruko eta inguruko euskeraren erabilera be garaia goa eta aberatsagoa da.

Baleiteke gure artean eskolari balio gorenaren emon eta kalearen garrantzia hainbestekoa ez dala usteko dauanik. Nahiko erraza da, ostera, ulertzen eta ulertarazten kaleko olatuaren eragina. Kaleak emoten deutso agerpena eta ikuspena hizkuntzari. Gizartean eta jentartean badagoala eta badala hizkuntza hori erakusten dau kaleak. Autortza publikoa egiten deutso euskerari be, eguneroko hartu-emonetan bizirik dagoala agertzen eta erakusten. Familia euskaldunetako eta eskoletako hizkuntza izanaz gainera, gizartean be onartua eta erabilia izatearen marka emoten deutso. Ezaugarri hori, beste batzuk ukatu gabe, ezinbesteko egiten jako normalkuntza eta normaltzearekin amets egiten dauan hizkuntzari eta hiztunari. Eta aparteko eran umeen kasuan, psikologoei ondo probatuta daukenez, umetan barrurazten eta gordetzen dan guztiak luze eta sendo irauten daualako pertsonaren bizitza osoan. Honetara, giro euskalduneko kalean sozializatzen badira, ohikotzat eta ezinbestekotzat joko dabe umeek euskera, eta ez ezelan be bazterreko eta azalekotzat.

FAMILIAK, ESKOLAK eta KALEAK, alkarren eskutik, alkarlana eginez, alkar bultzatuz eta alkartasun bideak urratuz oinarritu, errotu, sustraitu, irmotu eta sendotuko dabe euskerraren transimisioa/sozializazioa.

Eta sozializatzeko bidean dabilzan neska-mutilen artean ikaragarritzko indarra eta eragina dabe gaurko teknologia ba-

rriek; ume eta gazteen eguneroko ezinbesteko arnasa eta bizi indarra dirala esan geinke.

Abordadan sartzen jakez, goirik beherako egundoko olatu bailirean, informazino eta komunikazino teknologia barriak (IKTak). Hizkuntza baten etorkizuna babestu eta bultzatu eta hazurmamindu gura badogu, gaurko tresneria guztia erabiliz egin beharko dogu, ostantzean jai daukagu hemen eta orain ditugun gure ume eta gazteekin.

Aintzat hartu, jagon eta bizkortu daiguzan hizkuntza-sozializazinarako eragile nagusiak, eta gartsu eta grinaz erabili gaurko arnasa doguzan Informazino eta Komunikazino Teknologia barriak!

Euskeraz bizitzeko
Ametsa buruan
Gogoa eta bihotza
Dantzari barruan
Familiak bultzatu
Maitasun sutsuan
Arduraz murgildurik
Hiztunen munduan
Alkarrekin frutuak
Lortuz lur landuan (2).

Etiket **eskolara**
Aukera onena
Egundokoa da-ta
Haren ekarpena
Hitz, aditz ta kontzeptuz
Gaitasun zuzena
Ta gizarteratzeko
Zubi-lan gorena
Hezkuntza bidez jasoz
Landare lerdena (2).

Etxekoz, eskolako
Jo daigun **kalera**
Autortza publikoaz
Hizkuntza agertzer
Ugari erabiliz
Sakon bizkortzer
Hartu-emon danetan
Sendo zabaltzer
Ohikoa izan dadin
Guretzat euskera (2).

Hiru eragileok
Orioa behar
Ta gaur **teknologia**
Danontzat deiadar
Ikasketa-sareetan
Tresnak hor su ta gar
Eta hartu-emonetan
Bai gazte baita zahar
Euskeraz bizitzeko
Dakigula indar (2).

Ikusi eta ikasi
Entzun eta erantzun
Irrati telebista
Aspaldiko lagun
Mugikor ta tablet-a
Etxeratu daigun
Tuwitak eta whatsapp
Eginik ezagun
Hizkuntza barri hori
Euskaldun dakigun (2).

Lontzo Zugazaga